



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2013IPLE0011

Eguna: 2013-11-28

Ordua: 19:00-19:45

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Andoni Gartzia Arruabarrena	BILDU
- Maite Olatziregi Esparza	BILDU
- Agin Laburu Rezola	BILDU
- Ione Olatziregi Mendiorotz	BILDU
- Berta Arozena Bergara	BILDU
- Isabel Otero Glorie	BILDU
- Raul Redín Hernández	BILDU
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	Hamaikabat
- Imanol Lizarralde Marín	Hamaikabat

Bertaratu ez direnak

- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
---------------------------	---------

Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
2013ko urriaren 31ko akta onartzea	1	Aprobación del acta de 31 de octubre de 2013
2-2013 kreditu gehigarriak: alegazioak ebaztea	2	Crédito adicional 2-2013: resolución de alegaciones
Kale izendegiaren aldaketa	3	Modificación callejero
HEA 9 "Ergobia Ibilbidea" eremuko Plan Orokorraren aldaketa zehatzari buruzko txosten juridikoa	4	Informe jurídico sobre la iniciación de un expediente de modificación de Plan General para el AIU 9 "Ergobia Ibilbidea"



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

2014ko Astigarragako jaieguna izendatzea: aldaketa	5	Designación de festivo local para el año 2014: modificación
Mozioa: Musika Eskola	6	Moción: Musika Eskola
Mozioa: Euskaren Nazioarteko eguna	7	Moción: Día internacional del euskara
Mozioa: Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna	8	Moción: Día internacional contra la violencia hacia las mujeres
Mozioa: zaintza partekatuaren euskal legea	9	Moción: Ley vasca de correspondencia parental
Informazio, galdera eta eskariak	10	Información, ruegos y preguntas

Esan-eginak eta erabakiak

Alkateak proposatu du sartzea gai-zerrendan: Hernaniko udalari baimena ematea Astigarragako udala ordezkatu dezan 41/2013 eta 42/2013 Foru Dekretuak jasotako laguntzak bideratzeko, Urnietako udalak hartutako erabakiaren ildotik.

Batzarkideek, aho batez, onartu dute premiazko izendapena egitea eta aipaturiko puntua gai-zerrendan sartzea.

El Alcalde propone incorporar en el orden del día, otro punto: Autorizar al Ayuntamiento de Hernani para que represente al Ayuntamiento de Astigarraga en el marco de las ayudas recogidas en el Decreto Foral 41/2013 y 42/2013, tal y como ha acordado el Ayuntamiento de Urnieta.

Los miembros del pleno, por unanimidad, aprueban la declaración de urgencia y de incorporar el tema en el orden del día.

1. 2013ko urriaren 31ko akta onartzea

Akta, aho batez, onartu da.

Isabel Otero zinegotzia bertaratzen da bilkurara.

1. Aprobación del acta de 31 de octubre de 2013

El Acta es aprobada por unanimidad.

*Se incorpora la concejal Isabel Otero.

2. 2-2013 kreditu gehigarriak: alegazioak ebaztea

Ogasun batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

2. Crédito adicional 2-2013: resolución de alegaciones

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

1.- Aipaturiko alegazioak onartzea eta beraz behin betiko kredituak 618.195,49€ onartzea.

2.- Eratuko den 20/2012 ELD Funtsaen , kudeaketa Tokiko Gobernuaren bidez egitea onartu da.

3.-Udal aurrekontuei buruz indarrean dagoen araudiak ezarritakoa betez, kapituluko laburpen hau argitaratzea bidaliko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera:

1.- Aprobar las alegaciones presentadas y el crédito definitivo de 618.195,49 €.

2.- Aprobar la gestión del Fondo del RDL 20/2012 a través de la Junta de gobierno local.

3.- Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa resumen por capítulos tal y como establece la norma vigente sobre presupuestos municipales:

2-2013 KREDITU GEHIGARRIA Crédito adicional 2-2013		
GASTUAK Gastos		
1	Pertsonal gastuak/Gastos de personal	89.158,58
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuak/Gastos en bienes y servicios	76.205,39
4	Transferentzia arruntak/Transferencias corrientes	10.000,00
6	Inbertsio errealak/Inversiones reales	442.831,52
GUZTIRA		618.195,49
SARRERAK Ingresos		
1	Zuzeneko Zergak	100.000,00
6	Inbertsio errealak besterenganatzea	60.031,00
7	Kapital transferentziak/transferencias de capital	270.922,08
8	Diruzaintzako gerakina/Remanente de Tesoreria	187.242,41
GUZTIRA		618.195,49

Irizpena bozkatu ondoren, EHBilduren 7 aldeko botoekin eta H1leko zinegotzien 2 aurkako botoekin, onartu egiten da.

Botoa azaltzeko garaian, Bixente Arrizabalaga zinegotziak adierazi du puntu horri dagokionez aurreko osoko

Sometido a votación el dictamen es aprobado con 7 votos a favor de EHBildu, y 2 votos en contra de los concejales de H1.

En la explicación de voto el concejal Bixente Arrizabalaga señala que se remite a lo que manifestó en el pleno



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

bilkuran esan zuenari eusten diola.

anterior en relación a este punto.

Zorione Etxezarraga zinegotziak bertaratzen da bilkurara.

*Se incorpora la concejal Zorione Etxezarraga

3. Kale izendegiaren aldaketa

Obra eta zerbitzu batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

- Astondo bidea 10 zk. ezartzea Iñaki Dorronsoro-k eraikitako etxeari, zenbaki hori Rekalde-zahar baserriak jasotzen zuen bi zenbakietako bat izanik eta beharrezkoa ez duelarik.
- Oiarbide bidea 5 zk. ezartzea Lur Denok enpresak ustiatzen duen eremuari, horretarako aldaketa hauek egingo direlarik:
 - Olabide baserria lehen 1 zk., orain 11 zk.
 - Lagatxaga baserria lehen 3 zk., orain 17 zk.
 - Andolatxaga baserria lehen 5 zk., orain 23 zk.
- Manuel Aramendik sustatutako eraikuntzari Manixene bidea 1bis zenbakia ezartzea.

3. Modificación callejero

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de obras y servicios, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

- Asignar la vivienda construida por Iñaki Dorronsoro el nº 10 de Astondo bidea, número que se recupera del caserío Rekalde-zahar actualmente con dos números de callejero.
- Asignar a la parcela donde la empresa Lur Denok desarrolla su actividad el nº 5 de Oiarbide bidea, realizando las siguientes modificaciones de callejero:
 - Dotar al caserío Olabide el nº 11, antes nº 1.
 - Dotar al caserío Lagatxaga el nº 17, antes nº 3.
 - Dotar al caserío Andolatxaga el nº 23, antes nº 5.
- Asignar el nº 1bis de Manixene bidea a la edificación promovida por Manuel Aramendi.

Irizpena bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

4. HEA 9 “Ergobia Ibilbidea” eremuko Plan Orokorraren aldaketa zehatzari buruzko txosten juridikoa

Hirigintza batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Lehen atala.- Astigarragako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren Testu Bateginaren aldaketa zehatza idazteko erabaki hartzea, HEA 09 “Ergobia Ibilbidea” eremuari dagokionean.

Bigarren atala.- HEA 09 “Ergobia Ibilbide” eremuarekiko hiri antolamendurako Astigarragako Plan Orokorraren aldaketa putualaren dokumentua zuzentzea.

Hirugarren atala.- Erabakia Astigarragako Plan Orokorreko HEU 09 “Ergobia Ibilbide”ko Hitzarmen Batzarrari jakinaraztea.

Irizpena bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

4. Informe jurídico sobre la iniciación de un expediente de modificación de Plan General para el AIU 9 “Ergobia Ibilbidea”

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero.- Acordar la redacción del expediente de modificación puntual del Texto Refundido del P.G.O.U. de Astigarraga, referido al A.I.U. 09 “Ergobia Ibilbide”.

Segundo.- Subsanan el documento de modificación puntual del P.G.O.U. de Astigarraga referido al A.I.U. 09 “Ergobia Ibilbide” para su aprobación inicial.

Tercero.- Notificar el acuerdo a la Junta de Concertación de la A.I.U. 09 “Ergobia Ibilbide” del P.G.O.U.

Sometido a votación el dictamen es aprobado por unanimidad.

5. 2014ko Astigarragako jaieguna izendatzea: aldaketa

Alkateak jakinarazten du azaroaren 14ko datarekin Lege Biltzarrak 3/2013 Legea onartu zuela. Lege honek bertan behera uzten du urriaren 25eko jai eguna, eta proposatzen da uztailaren 25a, Santiago Eguna, jai eguna izatea.

Irailaren 26ko osoko bilkurak 839/2013 dekretua berretsi zuen, eta bertan 2014ko herriko jai uztailaren 25a izendatzen zen. Alkateak proposatzen du 1033/2013

5. Designación de festivo local para el año 2014: modificación

El alcalde señala que el Parlamento Vasco con fecha 14 de noviembre aprobó la Ley 3/2013, por la que deroga el 25 de octubre como día festivo, y en la que se propone como día festivo el 25 de julio, día de Santiago.

El pleno de 26 de septiembre ratificó el decreto 839/2013 por el que se proponía como día festivo local para el año 2014 el día 25 de julio.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

dekretua, 839/2013 dekretua ondoriorik gabe uzten duena, berrestea, eta 2014. urterako uztailaren 26a, Santa Ana eguna, izendatzea.

El alcalde propone ratificar el decreto 1033/2013 por el que deja sin efecto el decreto 839/2013, y designa como día festivo local para el año 2014 el 26 de julio, día de Santa Ana.

1033/2013 dekretua, aho batez, berresten da.

Sometido a ratificación el decreto 1033/2013, es aprobado por unanimidad.

6. Mozioa: Musika Eskola

Alkateak hitza, Musika Eskolako ordezkari bati ematen dio. Aurkeztutako mozioa irakurtzen du, eta honako erabaki hau proposatu du:

Astigarragako udalak Eusko Jaurlaritzako hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura sailari, musika eskolentzat %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko asmotan, Eusko Legebiltzarrak aho batez 2013ko otsailaren 28an onartutako transakzio-zuzenketa betetzea eta ekintza-plana ezartzea eskatzen dio.

6. Moción: Musika Eskola

El alcalde otorga la palabra a una representante de la Musika Eskola quien procede a dar lectura a la moción presentada proponiendo la adopción del siguiente acuerdo:

El Ayuntamiento de Astigarraga insta al Departamento de educación, política lingüística y cultura del Gobierno Vasco a cumplir la enmienda transaccional aprobada por unanimidad por el parlamento vasco el 28 de febrero de 2013, estableciendo un plan de acción con el objetivo de alcanzar una financiación estable del 33% para las escuelas de música.

Mozioa bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

Sometido a votación la moción es aprobada por unanimidad.

7. Mozioa: Euskararen Nazioarteko eguna

Alkateak aurkeztutako mozioa irakurtzen du, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da:

7. Moción: Día internacional del euskara

El alcalde da lectura a la moción presentada proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

- | | |
|---|--|
| 1.- Euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatuko ditugu, eta euskara administrazio osoan lan eta zerbitzu hizkuntza bihurtzeko konpromisoa hartzen dugu. | 1.- Garantizaremos los derechos lingüísticos de los vascoparlantes y nos comprometemos a que el euskera sea la lengua de trabajo y de servicio en toda la administración. |
| 2.- Euskararen arnaguneak –espazio sozial euskaldunak- bultzatu eta indartzeko konpromisoa hartzen dugu. | 2.- Nos comprometemos a fomentar y fortalecer los oasis del euskera (espacios sociales vascos). |
| 3.- Udalaren kontratazio-publiko eta lehiaketa guztietan hizkuntza-irizpideak txertatu eta garatzeko konpromisoa hartzen dugu. | 3.- Nos comprometemos a insertar y desarrollar los criterios lingüísticos en todas las contrataciones públicas y concursos del ayuntamiento. |
| 4.- Udal honek hiztun berriak lortu eta euskararen ezagutza udalerrian unibertsalizatzen laguntzeko konpromisoa hartzen dugu. | 4.- Nos comprometemos a que este Ayuntamiento logre nuevos hablantes y, a su vez, nos comprometemos a ayudar para que el conocimiento del euskera sea universal en el municipio. |
| 5.- Herriko euskararen aldeko bilgune zabalak –euskaingintza, eragileak, sektore desberdinerako erakundeak, udala- sortzen eta gorpuzten laguntzeko konpromisoa hartzen dugu. | 5.- Nos comprometemos a ayudar en la creación y materialización de puntos de reunión a favor del euskera (actividad cultural vasca, agentes, organismos de diferentes sectores). |

Horren ondoren, honako erabaki hauek onartzeko proposatuz aurkeztutako mozioa irakurri du Zorione zinegotziak:

A continuación la concejal Zorione da lectura a la moción presentada proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

- | | |
|--|---|
| 1.- Gure herritarrei udal administrazioarekin dituzten harremanetan nahi duten hizkuntza erabiltzeko aukera bermatzeko. Herritarren eskubideak bermatzea eta defendatzea gizarte aurreratu eta demokratikoen ezaugarri nagusietakoa den heinean, gure udalak bermatu eta defendatu beharreko eskubidetzat jotzen baitu hizkuntza eskubidea bera ere. | 1.- Garantizar a nuestra ciudadanía la opción de utilizar la lengua de su elección en las relaciones con la Administración municipal. Porque, en la medida en que la garantía y defensa de los derechos ciudadanos constituye una de las características esenciales de las sociedades democráticas avanzadas, nuestro Ayuntamiento considera incluidos también los derechos lingüísticos entre los derechos que han de ser garantizados y defendidos. |
| 2.- Euskara gero eta gehiago udal honetan lan hizkuntza izateko, udalean euskararen erabilera sustatu eta bermatuz, alkate eta | 2.- Que el euskera sea cada vez más lengua de trabajo, fomentando y garantizando su uso en el Ayuntamiento, |



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

zinegotziek euskararen erabileraren aldeko jarrera erakutsiz, eta euskaraz jarduteko gai diren herri-langileek beren lanean euskararen erabilera areagotuz.

3.- Abenduaren 31rako V. Plangintzaldiari dagokion euskara plana egina izateko.

4.- Herritarrengan euskararen aldeko atxikimendua sendotzea helburu duten ekintzak bideratzeko, euskararen aldeko jarrerak sustatzeko eta herritarrak euskararen munduez disfrutatzen animatzeko.

5.- Euskararen erabilera, bereziki gazteen artean eta eremu ez formaletan sendotzeko ekimenak planifikatu eta gauzatzeko, euskara biziberritu eta sustatzeko plangintza orokorraren baitan.

6.- Udal honen baitan eta gure udalerrian, euskararen sustapenerako ekimen eta politiken inguruko adostasun sozial eta politiko zabal eta sakonena biltzeko.

Eztabaidatu ondoren, EHBildu eta EAJ/PNV taldeek erabaki dute bi mozioak mozio bakar batean biltzea; mozio horren inguruko bozketa egin da eta aho batez onartu da.

8. Mozioa: Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna

Alkateak aurkeztutako mozioa irakurtzen du, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da:

haciendo patente una actitud favorable a su uso por parte de alcalde y concejales, e incrementando el uso del euskara en su trabajo por parte de los empleados públicos capaces de utilizarlo.

3.- Elaborar el plan de euskara correspondiente al V Período de Planificación antes del 31 de diciembre.

4.- Promover acciones que persigan el objetivo de fortalecer la adhesión de la ciudadanía hacia el euskara, fomentar las actitudes favorables al euskara, y animar a la ciudadanía a disfrutar de los diversos mundos del euskara.

5.- Planificar y llevar a la práctica actuaciones tendentes a acrecentar el uso del euskara, especialmente entre la juventud y en los ámbitos no formales, en el marco de la planificación general para la revitalización del euskara.

6.- Procurar, en el contexto de este Ayuntamiento y municipio, el más amplio y profundo consenso social y político en torno a las iniciativas y políticas de fomento del euskara.

Tras un debate los grupos EHBildu y EAJ/PNV, acuerdan que ambas mociones se integren en una única que es sometida a votación y aprobada por unanimidad.

8. Moción: Día internacional contra la violencia hacia las mujeres

El alcalde da lectura a la moción presentada proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

- Berdintasun-politikak garatzeko baliabideak (giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak) urtetik urtera indartzea.
- Parte-hartzean oinarritutako prozesuak abian jartzea edo bultzatzen jarraitzea, jai-giroko erritu sinbolikoetan eta eremu soziokultural guztietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko.
- Emakumeen ahalduntzea sustatzeko eremu komunak sortzea eta/edo baliabideekin indartzea: ahalduntzeko eskolak, emakume-etxeak eta haiek sarean antolatzea. Hau da, emakumeei bultzada ematea, banaka zein taldeka, desberdintasunei, kalteberatasunari eta indarkeria matxistari aurre egiteko behar dituzten tresnak eskura eduki ditzaten.
- Beste udalerrri batzuekin elkarlanean hastea edo parte hartzen jarraitzea sare-programen bitartez abian jarritako eremu kolektiboetan, Gipuzkoa Berdinbidean programan adibidez. Programa horien arabera, udalek dirua jarri behar dute emakumeen aurkako (eta bereziki emakume gazteen aurkako) indarkeria prebenitzeko jardunak garatzeko, gizonetik elkarlana bultzatzeko, adierazpen honetan adierazitakoaren ildo beretik, eta ahalduntzeko eskolak abian jartzeko .
- Emakume gazteen aurkako indarkeria matxistari aurrea hartzeko erakunde arteko lan-prozesuak (Beldur barik programa adibidez) baliabide tekniko eta ekonomikoekin sendotzea.
- Lan kolektiboa abian jartzea eta/edo indartzen jarraitzea, indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeentzako arreta hobetzeko koordinazio-protokolo lokal edo mankomunatuaren esparruan.
- Fortalecer, anualmente, los recursos económicos y humanos destinados al desarrollo de políticas de igualdad.
- Poner en marcha o continuar impulsando procesos participativos que promueven la participación igualitaria de las mujeres en los rituales simbólicos y festivos, así como en los diversos espacios socio-culturales existentes.
- Crear y/o fortalecer con recursos los espacios comunes destinados a promover el empoderamiento de las mujeres, como las escuelas de empoderamiento, casas de las mujeres y su articulación en red. Esto es, a impulsar que las mujeres cuenten con los instrumentos necesarios para que puedan hacer frente, individual y colectivamente, a la desigualdad, la vulnerabilidad y la violencia machista.
- Comenzar o seguir participando activamente junto con otros municipios en los espacios colectivos puestos en marcha a través de los programas en red y que exigen destinar recursos económicos municipales para el desarrollo de actuaciones que permitan prevenir la violencia contra las mujeres, especialmente, la que enfrentan las mujeres jóvenes e impulsar el trabajo con los hombres, en el sentido señalado en la presente Declaración; y la puesta en marcha de escuelas de empoderamiento.
- Apoyar con recursos técnicos y económicos procesos de trabajo interinstitucionales dirigidos a la prevención de la violencia machista que enfrentan las mujeres jóvenes.
- Poner en marcha y/o continuar fortaleciendo el trabajo colectivo en el marco de los Protocolos de coordinación locales o mancomunados destinados a la mejora de la atención de las mujeres que enfrentan la violencia machista.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

- Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakume eta taldeentzako tokiko arretaz-zerbitzuak eratzea edo berdefinitzea, indarkeria-adierazpen desberdinei eta indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeen premia eta interes desberdinei erantzuteko.
- Articular o redefinir servicios de atención locales para mujeres y cuerpos que enfrentan la violencia machista que den respuesta a las diversas manifestaciones de ésta y a las diversas necesidades e intereses de las mujeres que la enfrentan.

Ondoren Zorione zinegotziak aurkeztutako mozioa irakurtzen du, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen du

A continuación la concejal Zorione da lectura a la moción presentada proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

- Udal honek konpromisoa hartzen du, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso, parte-hartzaile eta koordinatua garatzeko, arreta berezia jarriz neska gazteek eta nerabeek jasaten duten indarkerian.
- Este Ayuntamiento asume el compromiso de desarrollar, en el ámbito de sus competencias y en aplicación de la legislación vigente, una política municipal activa, integral, participativa y coordinada a favor de la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres, poniendo especial atención en la violencia que sufren las mujeres jóvenes y adolescentes.
- Horretarako, ekimenak abiaraziko ditu, emakumeak, batez ere emakume gazteak, zaugarritasunari aurre egiteko eta jabeak sustatzeko beharrezkoak diren baliabideez hornitzeko. Aldi berean, jarrera sexistak prebenitzeko eta eguneroko mikro eraso sexisten kontrako jarrera aktiboa eta irmoa hartzeko lan egingo du.
- Para ello pondrá en marcha, iniciativas que doten a las mujeres, especialmente a las jóvenes, de los recursos necesarios para hacer frente a la vulnerabilidad y promuevan el empoderamiento. Al mismo tiempo, trabajará con los jóvenes la prevención de comportamientos sexistas y la adopción de una actitud activa y firme contra las microagresiones sexistas cotidianas.
- Era berean, gonbit egiten diegu herritar guztiei, eta bereziki herriko neska-mutil gazteei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera, bai eta “Beldur Barik” gazteen arteko berdintasunerako prebentzio eta hezkuntza programan ere.
- Invita a la ciudadanía y, de manera muy especial, a las y los jóvenes del municipio a participar activamente en los diferentes actos que se lleven a cabo con motivo del 25 de noviembre, “Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres”, así como en el programa de prevención y educación para la igualdad entre la juventud “Beldur Barik”.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Eztabaidatu ondoren, EHBildu eta EAJ/PNV taldeek erabaki dute **bi mozioak mozio bakar batean biltzea**; EHBildu taldearen mozioan KONPROMISOA HARTU DU hitzak gehitu dira, mozioaren inguruko bozketa egin da eta aho batez onartu da.

9. Mozioa: Zaintza partekatuaren euskal legea

Kidetzak proposatutako mozioa aurkeztu du Alkateak; mozio horretan udalari proposatzen zaio Eusko Legebiltzarrari eska diezaiola gurasoen erantzunkidetasunaren legea premiaz izapidetzea eta onartzea, Euskal Autonomia Erkidegoan zaintza partekatua izateko lehentasunezko araua.

Mozio horri dagokionez, Alkateak adierazi du EHBilduren jarrera proposamen horren aurkakoa dela, zeren haren ustez zaintza partekatua ezin baita modu horretan orokortu, seme-alaben ongizatea eta zainketa modu onenean egiteko egokitu beharko delako beti zaintza.

Zorione Etxezarraga zinegotziak alkatearen antzera jardun du eta kontrako botoa emango duela adierazi du. H1 alderdiko Imanol Lizarralde zinegotziak adierazi du mozio horretan abstenitu egingo direla, egoera desberdinak ezagutu dituela eta nahiago duela abstenitu.

Mozioa bozkatu ondoren, ez da onartu kontrako 8 boto eta H1 alderdiaren 2 abstentzio izan direlako.

10. 41/2013 eta 42/2013 Foru Dekretuak

Tras un debate los grupos EHBildu y EAJ/PNV, **acuerdan que ambas mociones se integren en una única**, integrando en la moción de EHBildu la palabra ASUME EL COMPROMISO que es sometida a votación y aprobada por unanimidad.

9. Moción: Ley vasca de correspondencia parental

El Alcalde presenta la moción propuesta por Kidetza en la que se propone al ayuntamiento que inste al Parlamento Vasco a que se tramite con carácter urgente y se apruebe la ley de corresponsabilidad parental, de forma que en el País Vasco la custodia compartida sea la norma preferente.

En relación a esta moción señala el Alcalde que la postura de EHBildu es contraria a esta propuesta porque entienden que no se puede generalizar de ese modo la custodia compartida entendiendo que la custodia deberá adecuarse siempre a la prevalencia del bienestar y cuidado de los hijos/as.

La concejal Zorione Etxezarraga se manifiesta en términos similares que los manifestados por el alcalde e indica que votarán en contra.

El concejal de H1 Imanol Lizarralde manifiesta que se van a abstener en esta moción, ha conocido situaciones dispares y prefieren abstenerse.

Sometida a votación la moción es desestimada al producirse 8 votos en contra y 2 abstenciones de H1.

10.- Decretos Forales 41/2013 y 42/2013



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Proposatzen da Hernaniko udalari baimena ematea Astigarragako udala ordezkatu dezan 41/2013 eta 42/2013 Foru Dekretuetan jasotako laguntzak bideratzeko:

Se propone autorizar al Ayuntamiento de Hernani para que represente al Ayuntamiento de Astigarraga para que tramite las ayudas recogidas en el Decreto Foral 41/2013 y en el Decreto Foral 42/2013:

Lehena.- Hernaniko udalari baimena ematea Astigarragako udala ordezkatu dezan 41/2013 Foru Dekretuak (Tokiko enplegu planari laguntza gehigarria emateko programa kudeatzeko baldintzak arautzen dituena, mankomunitateak eta eskualdeko garapen agentziena) eta 42/2013 foru Dekretuak (Tokiko enplegua hobetze aldera Gipuzkoako mankomunitateetan eta eskualdeko garapen agentzietan adostutako proiektu estrategikoen garapenerako finantza laguntzaren programa kudeatzeko baldintzak ezartzen dituena) jasotako laguntzak bideratzeko.

Primero.- Autorizar al Ayuntamiento de Hernani para que represente al Ayuntamiento de Astigarraga en el marco de las ayudas recogidas en el Decreto Foral 41/2013 (por el que se regulan las condiciones de gestión del programa de apoyo adicional al plan de empleo local, las relativas a mancomunidades y agencia de desarrollo comarcales) y en el Decreto Foral 42/2013 (por el que se regulan las condiciones de gestión del programa de apoyo financiero al desarrollo de proyectos estratégicos acordados en el seno de las mancomunidades y agencias de desarrollo comarcal de Gipuzkoa que incidan en la mejora del empleo local).

Bigarrena.- Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalei ematea, jasota gera dadin.

Segundo.- Notificar el presente acuerdo a la Diputación Foral de Gipuzkoa, y a los Ayuntamientos de Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta y Usurbil.

Proposamena aho batez onartu da.

La propuesta es aprobada por unanimidad.

11. Informazio, galdera eta eskariak

11.1. Bixentek kiroldegiari buruz galdetu du eta adierazi du bertan ez dagoela telebistarik; galdera horri lone Olatziregi zinegotziak erantzun dio eta adierazi du laster telebista bat jarriko dutela kiroldegiko bizikleten eremuan.

11. Información, ruegos y preguntas

11.1. Pregunta Bixente en relación al Polideportivo indicando la inexistencia de un televisor, cuestión que constesta la concejal lone Olatziregi indicando que próximamente se va a instalar una televisión en la zona de bicis del polideportivo.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

11.2. Joxemi Jiménezek aurreko osoko bilkuran Azkarren kokatutako pertsonak nork aterarazi ote zituen jakiteko egin zidan galderari erantzun nion ez nekiela nor izan zen, baina nahi dut aktan jasotzea galdera hori Hernaniko udaleko aurreko alkateari egin behar diola.

11.2. En relación a la pregunta que me formuló Joxemi Jiménez en el pleno anterior sobre quien desalojó a las personas ubicadas en Azkar le contesté que no sabía pero quiero que conste en acta que la pregunta la tiene que hacerla a la anterior alcalde del ayuntamiento de Hernani .

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2013ko azaroaren 28an

Xabin Olaizola Lasa
Idazkaria